

# Ikasle militanteen esperientzia

**Eguzki Urteaga**  
**Soziologian Doktoregaia**

Artikulu honek ohar bat du abiapuntutzat, hots, ikasle-militantismoari buruz egin diren ikerketa gehienak akzio kolektiboaren ikuspegitik, Touraine-ren *Lutte Étudiante* adibide dela, edo erakundearen ikuspegitik jorratuak izan direla. Baina ezer gutxi dakigu ikasle militantez aktore gisa eta, zehazkiago, militantismoa bizi duten moduz. Helburua hutsune hori betetzea da, Frantziako ikasle militanteen esperientzia militantea zein den ulertzen saiatuz.

Gure hipotesia da, esperientzia militantea zatitua dagoela osatzen duten logikak, hau da, integrazioa, proiektua, bokazioa zein kritika, bereizi direnetik. Sortutako elkargaitzek militanteengan askotariko tentsioak ager daitezen laguntzen dute, besteak beste frustrazioa, angustia edo alienazioa, batasuna eraikitzeko barne-lan bat egitera bortxatuz. Baina ez dituzte denek zatiketa zein beraien ondorio berak ezagutu bakoitzak dauzkan baliabideen banaketa ezberdina baita karrera militanteko aurrerapenak banaketa horretan zerikusi nagusia dauka.

This article starts making the remark that researches realized about student militancy have chosen to analyse the perspective of mobilization, as Touraine's *Lutte Étudiante*, or the organizational perspective. We know few things on student militants as actors and, more precisely, on the manner in which they live their militancy. The objective is to fill this gape, trying to understand the militant experience of the militant students.

Our hypothesis is that the militant experience has been divided since that integration, project, vocation and critical logics have been separated. Incompatibilities originated have favoured the emergence of different kind of tensions among the militants, notably, frustration, anguish or alienation, forcing them to work reconstructing an internal union. But, everybody do not know similar divisions and consequences because their distribution is different. The advance in the militancy quarrier has been important in this distribution.

## Sarrera<sup>1</sup>

Laburpenean idatzi dugun moduan, artikulu honen helburua Frantziako ikasle militanteen esperientzia militantea zein den ulertzea da. Aldezten dugun hipotesia da, beraien esperientzia militantea zatituta dagoela, integrazio, proiektu, bokazio zein kritika logikak bakoitza bere aldetik baitoaz. Horren arrazoa bikoitza da. Lehenik, haien ezaugarri soziologikoak asko aldatu dira, 60ko hamarkadatik at Frantziako unibertsitateak eta ondorioz ikasle militanteak masifikatu eta demokratizatu egin baitira. Bigarrenik, ikasleen erakunde zein praktikak zatitu egin dira, besteak beste, alderdi politikoen ugaltzea eta sindikatuen banatzeak eraginda, eta baita korporazioen garapen handiaren eraginez ere.

Zatiketek tentsioak eragin dituzte, aktoreak bere buruarengan batasun-lan bat egitera behartuz. Hala ere, ez dituzte ikasle militante guztiek zatiketa eta eragin berdinak jasan, baliabide ezberdinak baitauzkate, horien banaketa karrera militantearen aurrerapenari, erakunde motari edo betetako erantzukizun-karguari loturik daudelarik. Hitz batean, aktoreek beren militantismoa bizi duten modua ez zaie emana baizik eta kide bakoitzak, bere erara eta bere ahalen arabera, eraikei behar du. Beraz, lehenik aktore-logikak jorratuko ditugu, bigarrenik beraien zatiketak eta ondorioak aztertzeko.

## Esperientzia militantearen osagaiak

### 1. Akzio-logikak

#### 1.1 Integrazioa

Integrazioak militanteak loturen bidez definitzen direla esan nahi du, errol zein jarrera-ereduak bere egitearen bidez (Durkheim 1963). Izaera bezalako nortasun baten erara bizi dute. Eta, «jarrera-mota hau oso errutinizatua izan arren, bizitza arruntean ez kontziente bilakatuz, ez da nahitaez inkontzientea, nortasun integratzailea kolokan jarrita delarik kontzientziara laster itzultzen baita» (Dubet 1994c: 113). Integrazioa hainbat adierazlek agerrarazten dute, hala nola, ikasle-organizazioen egituraketa zein hierarkiaren ezagutza-mailak, egoitzan egonaldi erregularrak, soziabilitatean parte hartzeak, betetako arduradun-postuak eta baita inbertsio-maila zein egindako jardueren izaerak ere.

Baina ikasle militante guztiak ez dira hein berean integratuak. Gure ikerketak erakutsi duenez, organizazio guztiek ez dute beren kideak osatzeko ahalmen berdina. Muturretan kokatzen direnak, eta baita korporazio batzuk ere, besteak baino integratzaileagoak dira, taldeari emandako lehentasunagatik, karrera batzuen “tradizioa”-gatik –medikuntza zein zuzenbidea adibide direla–, integrazioa

---

1. Siglen zerrenda. APE: Association des Psychologues Étudiants; BN: Bureau National; CA: Conseil d'Administration; CEVU: Conseil Étudiant de la Vie Universitaire; CN: Collectif National; EE: Énergie Étudiante; FAGE: Fédération des Associations Générales des Étudiants; JEC: Jeunesse Étudiante Chrétienne; PSA: Pour un Syndicalisme Autogestionnaire; RE: Renouveau Étudiant; RPR: Rassemblement Pour la République; UFR: Unité de Formation et de Recherche; UNEF: Union Nationale des Étudiants de France; UNEF-ID: Union Nationale des Étudiants de France Indépendante et Démocratique; UNI: Union Nationale Interuniversitaire.

laguntzeko martxan jarritako akzio bereziengatik. Medikuntzako *Carabins* erakundeak "integrazio-asteburuak" antolatzen dituen bitartean, Zientzia Politikoetakoek "bizutage"-a baliatzen dute. Halaber, integrazioa, bakoitzaren konpromisoaren araberakoa da, batzuen esku-hartzea handia baita militante-karrera egitea pentsatuz, batez ere ordezkari nazional frantsesa duten erakundeen kideek, besteak lokalerantz joatera mugatzen baitira jendearekin egoteko eta ongi pasatzeko, hitz batean, soziabilitateaz gozatzeko.

Integrazioa besteak beste karrera militantearen luzetasunean sustraituta dago. Hain zuzen ere, engaiatu berriak diren ikasle militanteak gutxi integratuak dira, lokalean une txiki batzuetan geratuz. Ikustera mugatzen dira, erakunde barruan zer gertatzen denaz ohartzeko. «Hasieran ez zara ongi sentitzen, ez baituzu inor ezagutzen» eta *Énergie Étudianteko* militante batek dioenez «lehenengo asteetan ez nuen gehiegi hitz egiten, egunkaria irakurtzera mugatzen nintzen. Soilik pertsona batek hitz egiten zidanean ahoa irekitzen nuen. Eta pixkanaka, afixak itsasten eta traktak banatzen hasi nintzen». Integrazioa, gainditu behar izan duten proba bat bezala deskribatzen dute, are eta gehiago jakinik epe horretan testifikatuak eta baztertuak direla.

Ondoren, militante erdi-integratuak aurkitzen ditugu, lokalean ordu asko igarotzen dutenak. Batezbestekoa hiru ordukoa da, bi orduko gutxienekoarekin eta zortzi orduko gehienekoarekin. AREseko militante bat, urte unibertsitarioan zehar, astean 40 ordu egoten zen elkartearen lokalean. Halaber, kide batzuk arduradun-karguetara iristen hasten dira lokaleko lehendakaria edo dossier garrantzitsu baten erantzule izanez. Oro har, Adiministrazio Kontseiluetara ailegatzen dira, funtzio zehatzak edukiz edo ez, eta barnealde zein kanpoaldeko soziabilitate militantean parte hartzen dute, horrek, integrazioa azeleratzeaz gain, proiektuak gauzatzeko zailtasunak ordaintzen baititu. Azkenik, ikasle militante mota honek jarduera zein ekintza gehientsuenetan esku hartzen du konprometitzeko beldurrik gabe.

Militante integratuak, izenak dioten erara, ongi integratuak dira betetzen dituzten karguek islatzen duten moduan. Batzuk Kolektibo Nazional eta, hein murritzagoan, Bulego Nazionaleko kideak dira. Ahaztu gabe, jardueretan asko engaiatzen direla, anfiteatroetan hitza hartuz, komunikatuak idatziz edo txekeak izenpetuz. Eta, lokalean ikasle militante erdi-integratuak baino ordu gutxiago egoten badira, denbora asko ematen dute, beti baitago zerbait egiteko edo norbait ikusteko.

Irtetera doazen militanteak beren militantismoaren amaieran daude, maiz ikasketak bukatzeaz daudelako. Ondorioz, beti integratuak izan arren gero eta gutxiago dira, lokalean daukaten presentziaren intentsitate zein sarritasun ezak agertzen duen gisara. Eta, arduradun-karguak betetzen segitu arren ez dituzte pilatzen eta egindako jardueren aukera selektiboa da; adibidez ez dira bilkura guztietara joaten eta oinarrizko jardueren aitzinean asperdura nabari da. Gustuko dituzten jarduerari lotzen dira, hau da, anfiteatroan hitzaldi bat egitea edo kontseiluetara<sup>2</sup> joatea. UNEF-IDko kide batek dio «militatzen segitzen dut kontseiluetan parte har baitezaket. Ikasleak laguntzeko modu bakarra da, beste guztia erakundearendako jarduera baita».

---

2. Hiru dira: CA, UFR Kontseilua, CEVU.

Beraz, integrazioa progresiboa da —azeleratua izan badaiteke ere—, militante baten ibilbidea adierazteko gisa hoberena delarik. Hain justu, «UNIko kidea izatean, egoitzara joaten nintzen gauzak nola suertatzen ziren ikusteko; kafe baten inguruan hitz egiten genuen. Hasieran testifikatu egin ninduten non nintzen ikusteko eta ahalmenak nituenez, konfidantza-harremana sortu arte. Epe horretan, entzutera mugatzen nintzen, erakundeak nola funtzionatzen zuen begiratzuz eta denbora pasa ahala oinarritzko lan batzuk egiten hasiz. Ondoren, bilkuretan maizago parte hartzen nuen eta baita kanpainak gauzatzen ere». Orokorki, «ahulki integratzen duen sistema batean ere, afiliazio aurrerakor edo akomodazio pertsonal bat nabari da» (Dubet 1994b: 191-192).

Integrazioaren izaera aitzinakorraren arrazoiak asko dira eta ez daude soilik “zaharren” erresistentziei lotuta; UNEF-IDko lehengo zuzendaritzaren pean bai ordea, zaharrek erantzukizun-karguak monopolizatu baitzituzten sartu berriak baztertzuz. Horri, berriak ez zakartzea eranstean zaio, arriskua aste batzuen buruan asetzea baita. Halaber, epe hori funtsezkoa da sineste politikoak egonkortzeko baita militatzeko nahiaz segurtatzeko. Esperimentatu egiten dute, beren aukera ona den ala ez ikusteko, horregatik datoz militantismoa konkretuki zertan oinarritzen den ohartzera. Gainera, gure interlokutore guztiek diote beren helburua ez dela ahal bezainbat kide edukitzea, aukera egiten dutenek ezagutza guztiarekin egin dezaten baizik. Azkenik, lehen asteak gazteak formatzeko beharrezkoak dira.

Hala eta guztiz, geure buruari galde geniezaioke ea integrazioa barneratzearen edo adaptazioaren sinonimo den. Organizazio batzuk beren kideak naturalki sozializatzeko gai badira, normak eta errolak barneraraziz, beste batzuek zailtasunak dauzkate. Sarrienetan, militanteak integrazioaren aurkakoak dira, ez baitute beren pertsonalitatea kolokan jar dezakeen gauzarik onartzen. Pertsonalitatea pertsonaiari kontrajartzen diote. Ondorioz, egokitu egiten dira, errola beti distantzia mantenduz jokatzeko dute, inoiz berarekin nahasi gabe. Batzuek erabilitako estrategiak edo trukoak aipatzen dituzte, besteak beste, «militanteen izenak gogoratzea, interesatzen zaizkien gaiez hitz egitea eta baita boteredun militante baten lagun bilakatzea ere»<sup>3</sup>.

Esperientzia militantea aktoreen proiektuei loturik dago.

## 1.2. Proiektuak

Izan ere, esperientzia militantea ikasle militanteek eraikitako proiektuez osaturik dago, hau da militantismoari ematen dioten baliagarritasunari. Azpimarra dezagun hala ere proiektu nozioa ez dela oso zehatza, banakoen zein hetsaduren artikulazioan kokatzen baita. Beste hitz batzuetan adierazita, proiektuak konponbide iraunkorren ondorioak dira, modu paregabean banatuak diren baliabideen eta aurkezten diren aukeren artean. Alde horretatik, militanteen proiektu subjektiboak ez dira errealitateari lotuak eta aurkezten diren aukeren arabera moldaera sinpleak. Ez dira arrakasta-aukera objektiboan interiorizazioak.

---

3. Bordele IV-ko UNI eskuineko sindikatuko lehendakaria.

Proiektuak hiru motakoak izan dira. Lehenak arduradun-karguetara iristeko helburua dutenak biltzen ditu, maiz karrera-ikuspegitik. Adibidez, Hiriko Bulegora eta baita lehendakaritzara ailegatu nahi lukete edo dossier batzuk oso balorizatuak dira eta beraz gutiziatuak. Ordezkaritza nazional frantsesa duten erakundeetan batik bat, militante zenbaitzuen proiektua Kolektibo Nazionalean eta zergatik ez Bulego Nazionalean sartzea da.

Bigarren motak ikasle militanteen epe ertaineko proiektuak batzen ditu. Zenbaitzuen hitzetan, geroan, jadanik kide diren alderdi politikoan militante edo hautetsi gisa konprometitzeko helburua dute. Horrela, gaur egun RPR alderdian dagoen Énergie Étudiante-ko kideak ostean Bergerac hiriko udal-hautetsia izateko egitasmoa du eta oraingo alkatearekin behin baino gehiagotan horri buruz hitz egin du. Besteek, behin lanean hasita, sindikalizatzeke edota enpresa-komiteko partaide izateko desira adierazten dute. Azkenek nahiago dute mota ezberdinetako elkarteetan engaiatu.

Eta hirugarren proiektu-motak militanteek egin nahi dituzten kanpaina zein ekintzak hunkitzen ditu. Scrrablean jokatzeko klub baten sortzetik, argazki-labortegei baten garatzera edota informazio- zein satira-egunkari baten eraikuntzara doaz. Organizazioaren barne funtzionamentuari lotuak ere izan daitezke, bere eraginkortasuna zein kide-kopurua handitzeko, erakundearen errepresentazio zein eragina areagotzeko, etab. Proiektu horiek gertakizun batzuen ostean osa daitezke. Hor dago *Grenier*-ko kide baten egitasmoa frogatzea; hain zuzen ere, ikuskizuneko intermitenteen mobilizazioen ondoren, arte inguruan lan egiten duten pertsonen alde kanpaina bat antolatzea pentsatu zuen.

Alabaina, lilurazkoa izango litzateke ikasle militante guztiek proiektu berak dituztela uste izatea (Poujol & Romer 1993), bai izaera zein kopuruari dagokionez, pertsonen eta egoeren arabera aldatzea besterik ez baitute egiten. Militante berrien proiekturik oro har ia ez dago. Nahiago dute besteen egitasmoak segitu propioak sortu edo aurkeztu baino, besteen gainean pausatuko balira bezala horrek darraren segurtasun eta baita frustrazioarekin ere. Salbuespenak daude, sarritan UNEF-IDeko militanteak edo Zientzia Politiketako ikasleak dira. Militante izatea beraien kurrikulumerako ona izan daitekeela pentsatzen dute, karrera politiko edo sindikal batean.

Hala ere, egitasmoen ez izateak arrazoi anitz dauzka. Lehenek nahiago dute kritikatzeko arriskua dela ez adierazi eta, horrek beraien proiektua zapuzteak sortuko lukeen tentsioa saihesteko aukera ematen die, jakinik modu guztiz ez dutela praktikan jartzeko gaitasunik. Bigarrenek beren ideia lapurtzeko beldurraren aurrean: «RPRan, alderdia finantzatzeko ideia bat aurkeztu nuen baina ondoren hilabete osoan ez ninduten berriz deitu. Hori ikusita lokalera joatea erabaki nuen eta ohartu nintzen nire ideia bere egin eta praktikan jartzen ari zirela». Hirugarrenek, jakin gabe ea datorren urtean jarraituko duten, besteen proiektuak segitzea hobesten dute. Laugarrenek ez dute proiekturik: «erakunde batera iristean ez dakizu zein diren jarduerak, erakundeak eramandako kanpainak edota Administrazio Kontseiluak edo Bulegoak nola funtzionatzen duten».

Militante integratuak, ideiaz zein proiektuz gainezka daude epe motz eta luzean. Adibide hoberena *Grenier* erakunde politiko autonomoko buru bat da. Izan

ere, «informazio zein kritikazko egunkari edo folleto bat sortu, eztabaidak antolatu ikusteko nola espazio politiko bat sor daitekeen edota hausnarketa bat eraman ezkerreko akzio baten muga zein arazoak jorrazteko» ziren haren egitasmoetariko batzuk. Era berean, Bordele IV-ko UNEF-en lehendakariak unibertsitateko sekzioa eta oro har hirikoa indartzea zuen helburutzat; horretarako barne-egituraketa azkartzea beharrezkoa zen eraginkortasunean irabazteko. Halaber, *Ras l'Front* talde bat sortzeko asmoa zuen, bai eta mugimendu antifaxista dinamizatzea ere datozen hauteskunde legislatiboetarako eta Papon-en epaiketarendako. Inongo lotsarik gabe aurkezteaz gain, besteak beren posizioetara erakartzeko ahalmena dute, dituzten estatutu zein gaitasunek ematen dieten eraginari esker.

Azkenik, joatear dauden militanteen proiektuak murrizten doaz pixkanaka. Ez dugu haboro militante integratuan dagoen aniztasun edo oparotasunik. Perspektiba ezak proiektuak eragotziko balitu bezala gertatzen da. Une berean, egitasmoak aldatzen doaz; funtsezko helburua militanteen erreleboaren segurtapenean oinarritzen da. Kasu batzuetan, aspaldidanik daukate, sekzio lekukoak beraiek eraiki edo bizkortu baitituzte. Izan ere, Bordele IV-ko UNEF-IDen sekzioa militante batek dinamizatu arren gehiengoaren aldaketaren ostean kargua kendu zioten egindako lana kontuan hartu gabe. Baina, maizenetan militante horien proiektuak ikasle-militantismoetik kanpo kokatzen dira, hots, gero egin nahiko luketen ogibidean edo konprometituko diren erakundeetan.

Argibidea, baliabideen edo *savoirs*, *savoirs-faire* eta *savoir-dires*-en banaketa ezberdinean dago. Konkretuago, baliabideak sinpatia sortzeko ahalmenari loturik daude, kideak “erosiz” zenbaitek esan oi duten gisara ala beraiekin “eztia” izanez, lortutako sustenguek garrantzi handia izanik Adiministrazio Kontseiluko bilkuretan batik bat. Bestalde, *savoir-faire*-ek forma bestelakoak hartzen dituzte, hala nola, «ongi osatutako dosierak prestatuz, kanpaina komuna antolatu nahi den erakundeek lehenik aurkeztuz, etab.»<sup>4</sup>. Baliabideak, besteak beste, esperientzia militanteen oinarritzen dira, esan nahi baita militatzen pasatutako urteetan.

Horrez gain, aukerek egitasmoen aldaketa lagundu dute. Adibidez, militante integratuen abiadak militante erdi-integratuei lekua utzi die beraien proiektuak aurkeztu zein aurrera eramateko. Espazio bat sortu du. Bordele IV Unibertsitateko UNiko lehendakaria kargu horretara iritsi da lehenagoko lehendakaria joan ostean. Halaber, gertakizunek proiektuak sortarazi edota praktikan jartzea erraztu dute eta 1994 zein 1995eko mobilizazioek baliabideen banaketa deboilatu zuten, partehar-tze handiak konpetentzien lorpena azeleratzen baitu.

Baina, nola hitz egin proiektuez bokazioa aipatu gabe?

### 1.3. Bokazioa

Bokazio nozioak gauzatze pertsonala adierazten du edo nahiago bada militantismoan zehar sentitutako errealizazio pertsonala. Bokazioa *Béruf* weberianoaren (Weber 1964: 74) bertsio profanoa da, esan nahi baita militanteak ez direla *politikatik* bizi *politikarentzako* baizik. Esperientzia militantearen osagairik pertsonale-

---

4. Bordele IVko UNEF sindikatuko lehendakaria.

na da benetan militantea izatea baimentzen baitu. Militantismoak pertsonalitatearen duen eragina definitzen du baita mundua ikusteko eta bere barnean sentitzeko modua ere.

Zehazkiago, elkarrizketetan ikusi ahal izan dugu bokazioa hiru dimentsiotan oinarritzen dela. Lehenik, militanteek eraginkortasuna bilatzen dute, organizazioaren barne-funtzionamenduan, praktikan jarritako akzioan edota engaiatzerako orduan. Ongi egindako lanak sortzen du errealizazio pertsonaleko sentimendua. Ondoren, bokazioa ezagutza-aberastasunarekin ezaugarritzen dute. Alde horretatik militantea subjektu intelektuala da, ezagutza baita errealitate sozialaren eta bere buruaren errepresentazioen aldaketek erakartzen duena. Azkenik, bokazioa pertsonak ezagutzeari eta topatzeari lotzen dute, beraiekin hitz egin, ideiak aldatu eta une goxoak pasatzeko aukera baita. *Les Héritiers* liburuan, Bour-dieu eta Passeron dagoeneko ohartu ziren ikasleak, «giza harreman aberasgarriak ukaiteko, bestee-kiko harreman akto zein trukaketak lortzeko» (Bourdieu & Passeron 1964: 93) engaiatzen zirela.

Hala ere, Bourdieu zein Passeronek bokazioa konpentsazio eta ilusio gisa ulertzen badute, maiz baliabide gabeko militanteengan aurkitzen dena ez baitaukate karrera eta kanpaina-proiektuak aurkeztu zein pratikan jartzeko ahalmenik, gure ikerketak beste konklusio batera garamatza. Militantismoan errealizatzen diren pertsonak une berean integratuenak baitira, betetzen dituzten karguak adierazten duten eran, eta baita proiektu garrantzitsuenak zein anitzenak aurkezten dituztenak ere. Beraz, ez dira antagonikoak, batera doaz.

Horrez gain, bokazioa “sortzezkoa” edo “ikasia” izan daiteke. Ikasle militante batzuek diote aspaldidanik militatu nahi zutela, noizean behinka haurtzarotik. *Énergie Étudiante* elkarteko kide baten bokazioa hamalau urterekin hasi zen, jada RPR alderdi politikoko karta hartu nahi baitzuen. Bestalde, asko, zenbait urtedanik aktualitate politikoari interesatzen dira emankizun politikoak telebistan ikusiz edo irratian entzunez, zenbaitzuk egunkariak egunero irakurriz. Bokazioak aitzinago adierazteko parada ere eduki du sindikatu, alderdi politiko eta elkarteko partaide edo klaseko arduraduna izanez. Besteek konprometitzeko nahia ukan zutela diote, baina ez zutela beraien itxaropenei erantzungo zion organizaziorik aurkitu. UNEFeko kide baten hitzetan «engaiatzeko borontatea nuen baina Unibertsitatea itxaron behar izan dut egokitzen zitzaidan erakunde bat aurkitzeko eta horrela nire borondatea gauzatzeko».

Oro har, militanteak hainbat arrazoi dituzte konprometitzeko, «lagunak egiteko, hitz egin eta ideiak trukatzeko, sinesten dugun ideak defendatzeko, etab.». *Grenier*-ko kide bat adibidez duela hilabete batzuk engaiatu zen «besteekin konprometitzeko eta ideien trukaketaren bila. Niretzat, aberasgarria izan da eta errealitateak ikusteko nuen modua erabat aldatu du». Besteentzat, bokazioa unibertsitateko hauteskundeetan agertu da jendea ezagutzearekin, fakultateko funtzionamenduaren ulermenarekin eta baita akzioaren intentsitate uneei esker ere, besteak beste, RE sindikatu ultrasekuindarreko militanteak UNEFeko kide batzuen atzetik ibili zirenean gauaz afixak itsasten ari zirenean. Horrez gain, bokazioa erakundeek egindako soziabilitateak sortzen du, batzuetan hain da egia non militanteak soilik horretaz gozatzeko konprometitzen diren.



Alabaina, aldeak ez dira bakarrik bokazioa iristeko unean kokatzen, baita bokazioaren indarrean ere, karrera militantean zehar aldatzen delako. Militante berriek esaten digute militantismoa, kasuen arabera, errealizazio pertsonal bezala bizi dutela, edo ez, baina esanguratsuen da ez direla horretaz ziur, erabiltzen duten hiztegi zein tonuak duda zein galdeketa agerraraziz. Denak integrazio ahulari kontrajarriak dira ezin baitira besteak bezalako kide legez aintzat hartuak izan. Beraientzat zenbat eta integratuagoak izan, hainbat erosoagoak dira.

Erdi-integratuena bizi-bizitzat jo daiteke, modu estremoan bizia, egoeren eta pertsonen menpe izan arren. Izan ere, UNEF sindikatuko pertsona bati Zientzieta-ko Idazkari gisa hautatua izateak atsegina handia sortu zion, kideek erakutsitako konfidantza eta ezagutzagatik. Gauza bera izan zen ARESeko Idazkariarentzako, bozketak poztasuna sortu zion, Zientziako ikaslea ez izan arren aukeratu baitzuten. Bestalde, jasotzen dituzten kritikak zein oharrek sentiberatasun handiarekin hartuak dira, aktoreen arabera aldatzen bada ere. Are eta gehiago jakitean jardueretan asko inbertitzen direla, kritikek beraien pertsonalitate sakona hunkituz. Kasik, militante horiek maitemindu erromantiko batzuei konpara genitzake, maitatutako emazteak bere keinu edo hitz xumeenarekin ere poztasunik handiena edo sufri-menturik gogorrena sor baitezake, XIX. mendeko literaturak miragarriki agertu duen moduan.

Militante integratuen bokazioa errealizazio pertsonalaren sinonimo da, beraien izakiaren osagai bat bezala. Aktoreek diotenez, «militantismoa nire bizi zein nortasunaren kaizu bat da, ez dut neure burua militatu gabe ikusten, uste dut ezin naitekeela horretaz pasa». Eta UNEF-IDko kide batek gehitzen du, «uste dut horretarako egina nengoela. Oso goiz horren sinestea eskuratu dut». Baina, beraien nortasunaren dimentsio garrantzitsua bada ez da inoiz erabatekoa, beste dimentsioekin elkarrekin bizi baita, militante erdi-integratuekin gertatzen ez den legez. Horrez gain, gertakizun zein pertsonen araberrako menpekotasuna ahula da, sortutako tentsioak urriak eta txikiak izanik. Jasotzen dituzten kritikak leunak izateaz gain aurre egiteko ahalmen handia dute.

Eta joateko zorian dauden militanteen bokazioa beheraka doa, indartsua izaten segitzen badu ere intentsitatea galdu baitu. Askok nekatuak eta lehertuak dirudite baina militantismo urteak pairatu arren ez dute inongo damurik adierazten. Inbertsiogabezia progresiboak laster utziko duten erakundearekiko identifikazioa mendratuko du. Gure buruari galde geniezaioke ea laxatze jarrerak ez ahal duen helburutzat, militantismo eta geroaren arteko trantsizio leuna egitea, min gehiegirik gabe.

Aldeen ulermena baliabideen banaketan ere ezagutzen dituzten oztopoetan oinarritzen da. Nola ez aipa kategoria batzuek jasaten dituzten dominazioak: emakumeak, gazteak, gutxiengoak eta oinarritzko militanteak. Eta neurri txikiagoan izan arren, beste dimentsioei loturik izan daitezke; adibidez APEko militante hiritarrak baserriko kideez mespretxuz mintzo dira, eta «beraien pentsatzeko mo-du berezia, alde konkretua, espiritu kritikoa falta» marratzen dituzte. Azkenik, fisikoki ederrak ez diren militanteak edo janzkera-ohitura bereziak dituztenak besteen irrifarre zein ohar zaugarriak jasaten dituzte, militantismoa bokazioan bizitzeko traba larri bilakatuz.



Oztopoen aitzinean, militanteek modu ezberdinean ihardukitzen dute. Lehenek inkompetentzia edo ahulkeria estigmatizazioak (Goffman 1975) barneratu dituzte, horien arabera ekinez. Batzuetan tentsioa hain da garrantzitsua non irtenbide bakarra erakundetik une baterako ihes egitea den. Besteek oztopoak gatazkatzan dituzte, kritikak ez badira publikoki adieraziak ere. Azkenik, soilik multzo txiki bat ailegatzen da egoe-ra konfliktualizatzear gain kritikak adieraztera eta injustiziak eta menderapenak baztertzeko konprometitzera, bokazioa kritikaren arma funtsezkoetarikoa baita (Dubet 1994b).

Esperientzia militantearen azken logika jorrazera eramaten gaitu, hots kritikarena.

#### 1.4. *Kritika*

Kritika esperientzia militantearen azken osagaia da. Jarduera horren bidez militantea subjektu gisa errealizatzen da, kritikak soziala izaten segitu arren. Ez da errebelazio bat ezta asmakizun bat ere, interpretazio bat baizik. Walzer-ek (1990) dioenez sozialki definituak diren bi elementu suposatzen ditu, alde batetik, «subjektuaren definizio sozial bat, munduan barne zein kanpo, sorkuntzaren eta gizakiaren izaeraren ikusmolde baten bidez» eta, beste aldetik, «figura horren egiteari loturiko oztopo sozialen oharmena» (Dubet 1994b: 114).

Izan ere, ikasle militanteek kritikak osatzeko eta formulatzeko orduan gizakiari eta bere eskubide fundamentalei dei egiten diote. Militante batek norbera izateko eskubideari deitzen dio erakundeak beragan jartzen duen konformitate-hersturari aurre egiteko. Edo UNIKo kide honek sindikatuko kideak kritikatzan ditu ez direlako bera bezainbat inbertitzen, militantearen ideala pertsona aktibo edo ekimen hartzailea baitu. Oharraraz dezagun, ideala organizazioarena nahiz gizarte osoarena izan daitekeela. Hain zuzen ere, UNEFeko kide batek erakundeko barne-demokrazia eskasa salatzen du pentsatuz erakundeak gutxiengo den korrontearen adierazpen eta ideiak kontuan hartu behar lituzkeela, “gehiengoaren diktadura” (Tocqueville 1988) ez erortzeko. Kritikak esaten dituzten aktoreek errepresentazioak erabiltzen dituzte beren jarrerak legitimatzeko.

Alabaina, ikasle militante guztiek ez dute modu berean kritikatzan. Sartu berriak diren kideen kritikak ez dira maiz gauzatuak. Ez dira militanteak zein erakundearen barne-funtzionamendua eztabaidatzera ausartzen, are eta gehiago jakitean sarritan ez direla disfuntzionamenduak zein dominazio-harremanak argiki ikusteko gai. Eta adierazitakoan ezpainen puntatik egiten dute, barkamena eskatzen ari balira legez. Umorearen tonuan ere plazaratzen dira, oharrei arintasuna emateko daukaten larritasun gutzia kentzen ahaleginduz.

Erdi-integratutako militanteek kritika anitzago egiten dituzte. Xehetasunei, aktibitate disfuntzional eta eramandako kanpainei buruz dira funtsean. Ateratako afixekin, zuzendaritzak bidalitako fazikuluekin edota fotokopien prezioekin ez daude ados. ARESeko kideek erregulariki bildumen prezioez hitz egiten dute; batzuek diote nahikoa izan behar dela zorrik ez ukaiteko, besteek aldiz jaitsi nahi dute ikasleei laguntza oparoenak eskaintzeko eta elkarte baten helburua ez dela dirua irabaztea esanez. Beraien kritikak batzuetan latzak dira eta garrantzi handia ematen diote txikiak diruditen aspektuei, jokoan dauden dimentsioak salatzen ez baitira ausar-

tzen. Ondorioz, konpentsazio-errola jokutzen dute. Hala ere, adierazitako kritikak sakonagoak izatea gertatzen da. *Grenier*-eko kide baten hitzetan, «pertsonek batzuek hitza monopolizatzeke joera dute, besteei ez diete hitz egiteko lekua uzten». Hala eta guztiz ere, maiz lasaiki edo zeharka adieraziak dira eta kritiken objektuaren zein salatua den pertsonaren arabera aldatzen da. Errazagoa da gogorki espresatzea pisu gabeko militantea edo kontsentsua egiten duen gai bati buruz. Beste batzuek pribatuan formulatu nahiago dute interesatua den pertsonari zuzenki esanez edo laguna den militante bati esanez berak bilkuran zehar aipa dezan.

Militante integratuen kasuan, ez dute inongo arazorik bai organizazioaren norabidea bai jarduera militantea hunkitzen duten hainbat xehetasun salatzeke. Bordele I-ean UNEFeko lehendakariak zioen «ez duela zentzurik data ipinia duten traktak egitea geroan ezin ditugulako berriz erabili. Gauza bera da oporrak baino aste bat lehenago aldizkari bat argitaratzearekin. Bestalde, afixa bat ez da kartel publizitario bat, bi kolore eta handiz idatzitako eslogana eduki behar ditu, alde kitzikatzaile batekin». Baina ez dira aldartearen arabera adieraziak, erakundean betetzen duen tokiaren arabera baizik. Izan ere, gutxiengoa den korronteko partaidea bada, are eta errazago salatuko du gailurrak oinarrikoen gainean jarduten duen menderapena, erakundea bera inoiz funtsean salatu gabe, bere korrontek gehiengo bihurtzeko helburua baitu. Adibidez, UNEFeko militanteak bere sindikatuen norabide orokorra eztabaidatzen du «karrera bakoitzaren inguruan egituratu gura lukeelako, korporatismoa joateko arriskuarekin». Horrez gain, onartarazi nahi dituzten proiektuen arabera, kritikak abileziarekin adieraziko dituzte.

Joateko zorian dauden militanteek adierazten dituzten kritiken inguruan zer esan, usu formulatuak badira indarrez zein izaeraz aldatzen direla. Zeren jarrerak, erakundeen disfuncionamenduak edo menpekotasunak gaitzesten badituzte, kemen zein suhartasun txikiagoarekin adieraziak dira. Ez inongo beldurrik dute-lako baizik eta gatazka zein eztabaida antzuak itzurtzeko. Halaber, erakundetik aldenduz, organizazioen arazoek garrantzia galtzen dute, beraien egitasmoak funtsean ikasle-militantismoetik urrun baitaude dagoeneko. Alabaina, militante sutsuak ere ezagutu ditugu.

Kritikek bidaltzaile zein hartzailearengan dute eragina. Hain justu, kritiken adierazpen sarriak autorearen estigmatizazio handi edo txikira darama. Murmurikariendako hartuak dira inoiz pozik ez baleude bezala. *Grenier*-ko kide bati hori gertatu zitzaion gauza bat esateko zuelarik adierazten baitzuen. Baina estigmatizazioak ez zuen gelditu eta denborarekin jasaten zituen kritikak baretzen joan ziren. Maila txikiagoan suertatu arren UNEF-ID sindikatuko militante “zahar” batek beti salatzen zuenaren irudia zeukan, berak zioenez ez bazen bizitzeko zaila ere.

Alabaina, logika horiek zatituko dira ondorioak edukiz.

## **Esperientzia militantearen zatiketa eta bere ondorioak**

### **1. Tentsio psikikoak**

Akzio-logikak banatuko dira beraien artean elkarrezintasunak sortuz eta ondorioz tentsioak agertuko dira. Weberrek erabili du indar handiarekin tentsio nozioa,

ohartu baita «jainkoak gerran daudela, tradizioa, konbikzioa eta erantzukizuna bereizten direla eta aktorea tentsioen tartean dago». Hain zuzen ere, «tentsio horiek ez dira jainkoaren mailan soilik kokatzen, banakoen esperientzia sakona, pertsonalitatea bera hunkitzen dute. Jainkoen gerra, gerra psikikoa ere bada» (Dubet 1994a: 179). Hala ere, esperientzia sozialaren tentsioen gaiak ez du nahitaez existentziaren ikuspegi dramatiko zein urratu batera eramaten. Tentsio anitz errutinizatzen eta ahanzten dira, besteak geroratuak diren bitartean.

Horien artean, karrera zein kanpaina-proiektuen eta integrazio urriaren artean dagoen elkartzintasuna kontu dezagun. UNI sindikatuko kide batek jasan duen frustrazioez hitz egin digu. «Inbertitzeko gutizia sentitzen nuen, gustuko nituen egitasmoak errealizatzeko, baina ezinezkoa zitzaidan ez bainintzen aski integratua. Orain militante berrientzat are eta zailagoa da, lehen bilkurak astean behin baike-neuzkan eta beraz esan nahi baita frustrazioa soilik egun horretan nabaritzen nuen. Egoitza daukagunetik ordea, zenbait astetan zehar egunero jasaten dute» lldo berean, integrazio urria dela eta aktore batzuek bizi duten egonezina aipatu digute, oldarkortasunaren antza ere eduki dezakeena. Alderantziz, besteek kulpabilitatea sentitzen dute, beraien estatutuak bortxatuta, atsegin dituzten kideak kritikatzera eramanak izan baitira. AREseko lehendakariaren egoera paradigmaticoa da alde horretatik kontakizunean bizi zuen tentsioa agerian geldituz.

Beste batzuek tentsioa bizi dute inkompatibilitatea baitago proiektuak egiteko ezintasunean eta beraien militantismoa bokazio bezala bizitzeko nahiaren artean. Erakundeetako militante erdi-integratuen egoera esanguratsua da, zeren beraien karrera zein akzio-proiektuek igoera ikaragarria duten une berean errealitatea ez doa bat. Bestalde, gerta daiteke aurkeztutako egitasmoen kritikak militante horien apalkuntza zein pairamena ekartzea, sentikortasun handia baitaukate. Noizean behin hesialdi batera eraman dezake; militanteek diote ez direla berriro hasiko eta nahiago dute isiltasunean zein hausnarketan geratu. Proiektua aurkezteari uko egiten diote berriro apalduak izateko beldurrez. Azkenik, salbuespena bada ere, suertatu izan da militante integratu batzuek beren egitasmoak etsitu edo atzeratu izana kongresuaren ondorioz gehiengo aldatu ostean.

Alabaina, ikasle militanteek ez dituzte tentsio berak jasaten. Izan ere, «esperientzia soziala oso proba ezberdina da: erregistro bakoitzean, baliabide diferenteak daude». Baliabidedun aktoreak esperientzia militante integratu baten eraikitza iristen badira, logiken narridura harmoniatu baten bidez, baliabiderik gabekoek ez baitute koherentzia ezartzeko ahalmen bera. Horrek «nortasunaren suntsipenera eta sistemarekiko hausturara eraman dezake» (Dubet 1995: 13-14).

Zehatzago, ohartzeko gara militante sartu berriek funtsean integrazio eskasaz gehien sufritzen dutela. Beren burua galdezkatzen dute, ez baitute oraino ulertzen zergatik den. Laburbiltzeko esan genezake larrimina bizi dutela. Militante erdi-integratuei dagokienez, alde batetik frustratuak dira ezinezkoa baitzaie dituzten proiektuak aurrera eramatea eta, beste aldetik, estu dira ez direlako jarduerak egiten gelditzen eta inplikazio handi horrek kritikaren beldur handia baitakar. Une berean, bere bizia menperatzen ez duten inpresioa dute, denak ihes egingo balio bezala itsasoko mareak eramanda. Ez da militante integratuen egoera. Hain zuzen ere, arduradun-karguak betetzen dituzte, proiektuak osatzen zein praktikan jartzen,

militantismoa bokazio gisa bizi dute eta ez daukate inongo arazorik kritikatzeko orduan. Jasandako kritikak mugatuak izateaz gain noizean behingoak dira. Azkenik, joatear dauden militanteen tentsioa urruntasun progresiboari zein unadurari leporatzen zaio. Errelebo bat osatzearekin obsesionatuta daude, segurtatua ez balitz beren erakundea uzteko kezka edukiko bailituzkete.

Tentsioek batasun-lana egitera eramango dituzte militanteak.

## 2. Aktorearen lana

Logiken heterogeneotasunak aktorearen lana egitea suposatzen du, esperientzia militantea eraikitzeko. Esperientzia militantea proba bat da non, logiken banaketen aurrean, aktoreak konbinatzeko dauzkan eginbehar zein ahalmenak kontrajartzen dizkion. Ondorioz subjektua ikasle militanteek beren buruarengan egiten duten lan baten modura agertzen da, subjektuaren definizio sozial batetik abiatuz. Oro har, militanteak logika ezberdinak moldatu behar ditu batasun delako bat eraikitzen ahaleginduz. Horrek aukeraz, dilemaz, giltzadura zein konponbide-entseguz osaturiko negoziazioak dakartza. Hori da Dubetek aktorearen lana deitzen duena.

Lan horrek tankera anitz hartu ditu. Hain zuzen ere, proiektuak aurkezteko zailtasunak sorturiko frustrazioaren aurrean, militanteek beste batzuei dei egin diete beren proiektuak aipatzeko eta Administrazio Kontseiluko bilkuran aurkez ditzaten. APEko kide batek erakundeko lehendakaria laguna izanik beraren bidez zeuzkan ideiak azaldu zituen. Beste prozedura bat arrazionalizazioan oinarrituta dago, "disonantzia kognitiboa" (Festinger 1950) desagertarazi nahian. Ikasle militante batek kritikak ez formulatu izana zuzenetsi nahi zuen esanez «ez nintzela nahiko inbertitzen, neure buruari esaten nion kritikek ez zutela ezertarako balio izango eta gatazkak sortuko zituela». Halaber, militante berriek pentsatzen zuten «ez banaiz segidan integratua ez da nire jarrera edo nortasunagatik baizik eta erakundeek horrela funtzionatzen dutelako». Besteek zioten pairatutako kritikak ez zirela erantzunik gabe geldituko. «Hasieran, berria izanik banekien ezin nuela ihardetsi, baina neure buruari esaten nion ez zela galdua geroan egoera berdina berregiten balitz orduan dena aterako niolako».

Bestalde, jasandako kritiken aurrean militanteek bi eratan erantzun dute. Lehenik, estigmatizazioa arbuiatuz derrigortu nahi zuten eta egoera konfliktualizatu. Ilustrazio hoberena *Carabins* elkarteko militante batena da. Engaiatu zen urtean bertan proposatu zioten Bulegoko kide izatea eta bota zizkioten kritiken aurrean, gestio akatsak eta organizazioaren disfuntzionamenduak zirela eta, egoera konfliktualizatu egin zuen, esanez «ez bazeuden pozik aski zutela beraiek egitea eta erraza dela kritikatzeko norbera bulegoan ez dagoenean». Bigarrenik, militanteak justifikatzen ahaleginduko dira. Militante berak dio egindako akatsen aurrean argitzen saiatu zela, bere eskarmentu faltari leporatuz, ondorioz berarekin barkabera izan behar zela esanez.

Angustia eta frustrazioa murrizteko beste era bat erakundetik une baterako alde egitea izan da. APEko kide baten egoera izan zen eta soilik estigmatizatu zuten pertsonak organizazioa utzi zutelarik itzultzea erabaki zuen. Une berean

irtenbidea militantismoa ez den jardueretan murgiltzean oinarri daiteke, hala nola aisietan, kiroletan, irakurketan... militantismotik ihes egin eta beste gauzatan pentsatzeko. Militante berriek mekanismo hau lehenesten dute, integrazio handiaren itxaropenean daukaten modu bakarra baita. *Grenier*-ko kide horren kasuan legez, «tentsiorik ez sentitzeko ez nion neure buruari galdera gehiegi ipintzen, ez nintzen dena esplikatzan saiatzen alferrik baitzen».

Aktorearen lana luzeago edo motzagoa izan da, pertsonen eta erabakiaren garrantziaren arabera aldatuz. Hain zuzen ere, Bordele I-eko UNEF sindikatuko lehendakariak senez funtzionatzen du, erabakiak laster hartuz, ez baitzaio egunetan zehar galdera bati itzuliak ematea atsegin. «Ez dut gehiegi gogoetatzen, batzuetan ezkontzientea da, errutinizatua baitago». Besteek aldiz, denbora hartzen dute. PSAko militante batek kontsideratzen du urte batetik at behar izan duela oreka bat aurkitu ahal izateko, hots, integrazioa, proiektuak, kritika zein bo-kazioa elkarrekin biziartzeko. Maiz, ikasle militanteek hilabete batzuk erabiltzen dituzte egoera horretara ailegatzeko, batez ere militante erdi-integratuak.

Baina, tentsioendako legez, aktorearen lana egiteko ahalmenak ez dira modu berdinean banatuak. Hain justu, dominanteak arazo askorik gabe iristen badira «dominatuak ez dira beren esperientzia menderatzera zein eraikitzeera ailegatzen. Logika batetik bestera doaz, beraien heterodeterminazioa dela medio. Benetan alienatuak dira eta soilik gatazkaren bidez eraiki dezakete beren esperientzia». Lau mota nabarmentzen dira. Militante berrien lana «ez militantismoan sobera pentsatzea da. Nahiago dute itxaron, ez eta prozesua aldatu». Kide erdi-integratuak arrazionalitu egiten du edo integrazioa azeleratu guraz dabil. Militante integratuak logikak harmoniatsuki lotzen ditu konfliktualizatuz zein distantzia hartuz. Eta joatear dauden militanteen kasuan, esperientzia menderatu arren, beraien lana erakundearen eta bere egoera pertsonalaren oraina zein geroa elkartzean oinarritzen da.

Laburbilduz, esan genezake aukera iraunkorrak egitera bortxatuak direla, beren artean konponduz, hitz eginez eta negoziatuz.

## Konklusioa

Artikulu honen amaieran berriro gogora dezagun zein diren planteatu ditugun galdera eta erantzuna. Gure helburua Frantziako ikasle militanteen esperientzia militantea ulertzea zen, esan nahi baita beren militantismoa nola bizi duten. Aldeztu dugun hipotesiak dio zatiketa dela haren ezaugarri nagusia, logika bakoitza bere aldetik baitoa. Zatiketa horrek tentsio psikikoak sortzen ditu eta militanteak berreraikuntza-lan baten egitera bortxatzen ditu beraien barne batasuna mantendu ahal izateko. Baina ez dituzte aktore guztiek zatiketa eta ondorio berak jasan, dituzten baliabideak modu ezberdinean banatuak baitira. Maila horretan, karrera militanteak funtsezko errola jokatu du.

Ondorioak bikoitzak dira. Batetik, figura militante zentral baten desagerpena da, ez baitago esperientzia militante osoa bil dezakeen pertsonairik, 1968ko maiatzean agertu zen militante ezkertiarra bezala. Gauza bera esan liteke Algeriako gerraren aurka mobilizatu ziren JECko ikasle militanteek (Sabot 1995). Bestetik, esperientzia militantearen ulermena geroz eta zailagoa da, aktore bakoitzaren

egoera eta lanaren ondorioa baita, jakinik ikasle militanteak geroz eta ezberdina-  
goak direla eta ez dagoela erakunde zein praktika bateraturik esperientziak  
homogeneizatzeko. Justu kontrakoa gertatzen da.

Eta esperientzia militantearendako egia dena militantismoaren beste alderdi  
guztientzako ere hala da (Perrineau 1994). Hain justu, erakunde, akzio kolektibo,  
bizimodu, ideologia, ezaugarri soziologiko edota jardueren kasuan gauza bera esan  
daiteke. Adibide gisa, akzio kolektiboan oihartzaren gara laguntza materiala –ikas-  
leen egoera materiala hobetu nahi duena–, parte-hartze demokratikoa –ikasle es-  
tatutua babestu edota hobetu gura duena–, akzio politikoa –subjektua botere-mota  
guztien aurka babestea helburutzat duena– eta animazio kulturala –ikasleak jarrera  
kritikoa ukaitera bultzatu nahi duena– bereizten doazela. Izan ere, UNEF *handia*-ren  
garaian organizazio bera denak erabiltzeko gai bazen ez da orain egia. Gaur egun,  
esan daiteke korporazioak laguntza materialean oinarritzen direla, sindikatuak  
partehartze demokratikoan, alderdi politiko klasikoak akzio politikoan eta alderdi  
politiko autonomoak animazio kulturalan.

## Bibliografia

- Blainrue, A., (1983): "Le syndicalisme étudiant", *Pouvoirs*, 26.
- Bourdet, Y., (1976): *Qu'est ce qui fait courir les militants? Analyse sociologique des motivations et des comportements*, Stock, Paris.
- Bourdieu, P., Passeron, J-C., (1964): *Les Héritiers. Les étudiants et la culture*, Minit, Paris.
- Capdeville, J., Mouriaux.R., (1972): "Le militantisme syndical. Esquisse bibliographique", *Revue Française de Science politique*, 22, 3.
- Chambraud, C., (1988): "L'UNEF-ID et le mouvement étudiants", *Politix*, Paris.
- Convert, B.; Pinet, M. (1993): *La carrière étudiante*, École Centrale de Lille, LARU.
- Dubert, F., (1994a): *Sociologie de l'expérience*, Seuil, Paris.
- , (1994b): "Les étudiants", *Universités et Villes*, L'Harmattan, Paris.
- , (1994c): "Sociologie de l'expérience et sociologie du sujet", *Penser le sujet*, Fayard, Paris.
- , (1994d): "Dimensions et figures de l'expérience étudiante dans l'université de masse", *Revue Française de Sociologie*, XXXV, 4, 511-532.
- , (1995): "La vie comme une expérience", *Sciences Humaines*, Hors Série 9.
- Duriez, B., (1989): "Le militantisme, un objet d'analyse?", *ADRAC*, 57, uztaila.
- Durkheim, E., (1963): *Les règles de la méthode sociologique*, PUF, Paris.
- Galland, O., (1995): *Le monde des étudiants*, PUF, Paris.
- Galland, O.; Oberti, M. (1996): *Les étudiants*, La Découverte, Paris.
- Goffman, E., (1975): *Stigmaté. Les usages sociaux des handicaps*, Minit, Paris.
- Lapeyronnie, D.; Marie, J-L., (1992): *Campus blues. Les étudiants et leurs études*, Seuil, Paris.
- Le Bart, C.; Merle, P., (1997): *La citoyenneté étudiante. Intégration, participation et mobilisation*, PUF, Paris.
- Matalon, B., (1981): "La psychologie et l'explication des faits sociaux", *L'Année sociologique*, 31, 125-185.
- Monchablon, A., (1983): *Histoire de l'UNEF de 1956 à 1968*, PUF, Paris.
- Percheron, A., (1992): *La socialisation politique*, Armand Colin, Paris.
- Perrineau, P., (1994): *Engagement politique, Déclin ou mutation?* Presses de la FNSP, Paris.
- Poujol, G., (1989): "Le militantisme, un objet d'analyse", *ADRAC*, 57 uztaila 1989.

- Poujol, G.; Romer, M., (1993): "L'apprentissage du militantisme. Enquête auprès des organisations de jeunesse", LSCI, IRESKO-CNRS, Paris.
- Sabot, J-Y., (1995): *Le syndicalisme et la guerre d'Algérie. L'entrée d'une génération en politique et la formation d'une élite*, L'Harmattan, Paris.
- Tocqueville, A., (1988): *L'ancien régime et la révolution*, Flammarion, Paris.
- Touraine, A., (1978): *Lutte étudiante*, Seuil, Paris.
- Urteaga, E., (1995): "Mobilizazioaren teoria soziologiko berri baten zirriborroa", *Uztaro*, 15.
- , (1997): *Les militants étudiants*, Université de Bordeaux II.
- Walzer, M., (1990): *Critique et sens commun. Essai sur la critique sociale et son interprétation*, La Découverte, Paris.
- Weber, M., (1959): *Le savant et le politique*, 10/18, Paris.
- , (1964): *L'éthique protestante et l'esprit du capitalisme*, Plon, Paris.